

Euskal AEko populazioaren maximo historikoa 2019ko urtarrilaren 1ean iritsi zen, 2.188.017 pertsonarekin

Azken 20 urteetan hiru lurraldeek biztanleria handitu dute, nahiz eta neurri handiagoan Araban eta Gipuzkoan

Euskal AEn, 2019ko urtarrilaren 1ean, 2.188.017 biztanle zeuden, maximo historiko berri batera iritsita eta 2012ko zifrak gaindituta, aurreko populazio-goreneko urtea, Eustatek egindako datuen arabera. Horrela, aurreko urteko goranzko joerari eutsi zaio, eta, 2018ko datuekin alderatuta, Euskal AEko biztanleriaren hazkundera 7.568 pertsonakoa izan da.

Hiru lurraldeek handitu dute biztanleria 2018 eta 2019 artean, eta Gipuzkoak irabazi du gehien, 2.928 egoiliar gehiago baititu. Beraz, duela ia bi hamarkada hasitako biztanleria-hazkunderaren ildoari jarraitzen dio, eta azken 20 urteetan 44.427 biztanle irabazi ditu. Araba da ondoren, 327.967 egoiliarrekin, aurreko urtean baino 2.449 pertsona gehiago, eta 1999an baino 44.479 pertsona gehiago, Gipuzkoakoaren antzeko irabazia. Bizkaiak 1.142.853 biztanle ditu, eta biztanleria-hazkunde txikiena izan duen lurraldea da, bai 2018aren aldean (+2.191 biztanle), bai azken hamarkadetan (15.856 pertsona gehiago).

Euskal AEko hiru hiriburuetan egin du gora biztanleriak 2018 eta 2019 artean, eta Gasteiz izan da igoera handiena izan duena, 2.334 pertsonarekin; Donostiak eta Bilbok 663 eta 620 biztanle irabazi dituzte, hurrenez hurren. Aldi zabalagoan eginez gero analisia, emaitzak ezberdinagoak dira. 2009an Bilboko eta Donostiako populazioek beren maximo historikoak lortu zituzten; hortik aurrera, Bilbon beherakada etengabea izan da, 11.626 biztanle gutxiagorekin azken 10 urte hauetan; Donostiak gorabeherak izan ditu, 922 biztanle gutxiagorekin 2009ko datuekin alderatuta. Gasteizko biztanleriak, 2013an eta 2014an izan ezik, gora baino ez du egin, eta 2019an lortu du kopururik handiena, 246.149; hau da, 2009an baino 11.408 biztanle gehiago.

Euskal AEko gainerako udalerrietan ez da biztanle-aldakuntza nabarmenik gertatu 2018 eta 2019 artean. Halatan, Barakaldok irabazi du biztanle gehien, 442 pertsona gehiago, %0,45eko hazkunde erlatiboa izan dena. Astigarraga izan da portzentajezko igoera handiena izan duen udalerria, %4,36; hau da, 258 pertsona gehiago. Alderantziz, Getxo da biztanleriaren beherakada absolutu handiena izan duen udalerria, 442 biztanle, nahiz eta hori -%0,57 baino ez den.

2009 eta 2019 artean Basaurik, Getxok, Portugaletetik, Santurtzik eta Sestaok 1.000 biztanle pasa galdu zuten, orotara 10.557 pertsonako galera dena. Denak Bilbo Handiko udalerriak dira, eskualdea non dauden biztanle-dentsitaterik handiendun udalerriak Euskal AEn, km karratuko 5.000 pasa; Portugaleten da maximoa, 2019an, 14.480 biztanlerekin km karratuko.

Eboluzio negatibo hori Bilbo Handiko eskualdean errepikatzen da, zeinak galdu dituen 17.324 biztanle azken 10 urteetan; aldiz, Arabako Lautadak 13.057 irabazi ditu aldi berean.

Euskal AEko biztanleak, lurralde eremuen arabera, adin talde handiei jarraiki. 2019/01/01

	Guztira	0 - 19		20 - 64		>= 65	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskal AE	2.188.017	401.766	18,4	1.299.513	59,4	486.738	22,2
Lurralde historikoak							
Araba/Álava	327.967	63.630	19,4	196.323	59,9	68.014	20,7
Bizkaia	1.142.853	200.460	17,5	682.646	59,7	259.747	22,7
Gipuzkoa	717.197	137.676	19,2	420.544	58,6	158.977	22,2
Hiriburuak							
Bilbao	343.430	55.467	16,2	205.535	59,8	82.428	24,0
Donostia / San Sebastián	181.652	30.813	17,0	107.385	59,1	43.454	23,9
Vitoria-Gasteiz	246.149	47.570	19,3	147.320	59,8	51.259	20,8
Eskualdeak							
Arabako Ibarrek / Valles Alaveses	6.099	1.052	17,2	3.737	61,3	1.310	21,5
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	263.710	51.516	19,5	158.210	60,0	53.984	20,5
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	3.009	434	14,4	1.770	58,8	805	26,8
Arratia Nerbioi / Arratia-Nervión	23.932	4.813	20,1	14.284	59,7	4.835	20,2
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	76.836	14.607	19,0	45.431	59,1	16.798	21,9
Bilbo Handia / Gran Bilbao	858.236	145.244	16,9	512.153	59,7	200.839	23,4
Deba Beherea / Bajo Deba	55.686	10.735	19,3	31.998	57,5	12.953	23,3
Debagoiena / Alto Deba	63.170	12.017	19,0	36.373	57,6	14.780	23,4
Donostialdea / Donostia-San Sebastián	327.428	59.212	18,1	193.528	59,1	74.688	22,8
Durungaldea / Duranguesado	99.557	19.415	19,5	59.549	59,8	20.593	20,7
Enkartzioak / Encartaciones	31.911	5.714	17,9	19.255	60,3	6.942	21,8
Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	11.545	2.405	20,8	6.767	58,6	2.373	20,6
Gernika-Bermeo	45.877	8.493	18,5	26.750	58,3	10.634	23,2
Goierrri	68.407	14.198	20,8	39.486	57,7	14.723	21,5
Gorbeia Inguruak / Estribac. del Gorbea	8.813	1.811	20,5	5.370	60,9	1.632	18,5
Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa	34.791	6.412	18,4	20.469	58,8	7.910	22,7
Markina-Ondarroa	26.220	4.689	17,9	15.329	58,5	6.202	23,7
Plentzia-Mungia	57.120	12.092	21,2	35.326	61,8	9.702	17,0
Tolosaldea / Tolosa	49.251	10.462	21,2	28.684	58,2	10.105	20,5
Urola-Kostaldea / Urola Costa	76.419	16.445	21,5	45.044	58,9	14.930	19,5

Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika

Euskal AEko 33 udalerritan 65 urte edo gehiagokoak guztizkoaren laurden pasa dira

2019an Euskal AEk, %22,2rekin, Espainiako 65 urteko eta gehiagoko biztanleriaren proportzioa gainditzen du (%19,4), nahiz eta beste autonomia-erkidego batzuek, hala nola Asturiasko Printzerriak, Gaztela eta Leonek eta Galiziak, proportzio handiagoak dituzten, %25etik gorako ehunekoekin. Europarekin konparatuta, Italia bakarrik dago Euskal AEko proportzioaren gainetik, lau hamarren hala ere. Sexua kontuan hartuz, emakumezkoen artean %24,9 dira 65 urte eta gehiagokoak, eta %19,5 gizonezkoen artean.

Euskal AEko batez besteko ehunekoa gainditzen duten udalerririk 85 dira, eta 166k balio bera edo txikiagoa dute; lehenengoan artean daude Bilbo, Donostia eta Barakaldo, zeinetan Euskal AEko biztanleria osoaren %29 bizi baita. 2009an 65 urtetik gorako biztanleen ehunekoa ez zen %19ra iristen, eta batez bestekoa baino ehuneko handiagoa zuten udalerririk 125 ziren. Gainera, 2009 eta 2019 artean 56 udalerritan jaitsi da 65 urtetik gorako pertsonen proportzioa, nahiz eta biztanleria osoaren %2,2 baino ez diren.

Euskal AEko udalerrien artean alde handia dago biztanle egoiliarren adinari dagokionez, eta, zehazkiago, 65 urte eta gehiago dituzten pertsonen ehunekoari dagokionez, Irurako %10,1 eta Haranako %41,6 artekoa baita. Lehenengoaz gain, %12tik beherako ehunekoa duten beste lau udalerri daude: Astigarraga, Larraul, Iruña Oka eta Altzo (12.118 biztanle denen artean). Bestalde, bi udalerri daude %35en gainetik: Harana eta Lagran, 407 egoiliar dituztenak batuta.

Fokua eskualde-mailan jarrita, nabarmentzekoa da adinekoen proportzio handia Arabako Mendialdean (guztizkoaren %26,8); aldiz, ehuneko handiena duen hurrengo eskualdean, Markina-Ondarroan, %23,7 da, eta %17,0ra jaisten da Plentzia-Mungiako eskualdean.

Adin aurreratuenei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu ezen 85 urteko eta gehiagoko pertsonak 2009an %2,4 izatetik 2019an %3,9 izatera igaro direla, nahiz eta igoera hori ez den modu berean banatzen emakumeen eta gizonen artean; izan ere, ehuneko 1,1 puntukoa da gizonen artean eta 1,8koa emakumeen artean. Ondorioz, 85 urte edo gehiago dituzten emakumeak Euskal AEn guztizkoaren %5,1 dira, baina gizonen kasuan %2,5era jaisten da ehunekoa. 100 urte eta gehiagoko biztanleriaren kasuan, hazkunde-prozesua biziagoa izan da: 2009an 403 pertsona zeuden egoera horretan, eta hamar urte geroago 717 dira; %85,8, emakumezko.

Euskal AEn 65 urte eta gehiagoko 1,5 pertsona daude 16 urtetik beheragoko bakoitzeko; Espainian, guztira, 1,2koa da ratioa. Asturiasko Printzerriko erlaziotik urruti gara oraindik, hor 2,2koa baita.

Erlazio hori gaintitzen duten udalerriak 77 dira, muturreko kasuekin, hala nola Harana (7tik 1era) eta Lagran (4tik 1era). Kontrako aldean udalerri batzuk daude –hala nola Irura, Baliarrain, Larraul, Dulantzi eta Astigarraga– 65 urte edo gehiago dituen pertsona bakoitzeko 15 urte arteko 2 gazte baino gehiago dituztenak.

Arabako udalerrietan ditugu muturreko kasuak adinaren arabeko biztanle-banaketan, duten tamaina txikiagatik eta migrazio bezalako fenomenoek banaketan duten eraginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62